ASTEKARIA | 2018ko uztailaren 6an | XXI. urtea | USURBIL | 747. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua



# Azken trakarekin amaitu ziren festak


noaua
euskararen aterpe
Bazkideok egiten dugu posible
Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...
BAZKIDE EGIN ZAITEZ!
eta opari eder hau eskuratu!
Bazkidetza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus


B&a
Inmogest
FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA
INMOBILIARIA
ASEGURUAK
943 573 693
Eusko Gudari 35, ORIO


ELEKTRIZITATE-ELEKTRONIKA
FABRIKAZIO MEKANIKOA
ADMINISTRAZIOA
ENERGIA ETA URA. PRODUKZIO ZERBITZU ETA MANTEN.
Usurbilgo Lanbide Eskola
MATRIKULAZIOA!
www.lhusurbil.eus
UZTAILAREN 12TIK 18RA (BIAK BARNE)
UZTAILA
Goi eta Erdi Mailako ZIKLOAK
Lanerako Prestakuntza IKASTAROAK
Berrikuntza PROIEKTUAK
USURBILGO LANBIDE ESKOLA
CIFP USURBIL LHII

## Albistea iruditan

# Diplomak banatzeko garaia

2017ko azarotik 2018ko martxora bitartean, "Oinarrizko lanak ostatuetako pisuetan" izeneko ikastaroa burutu da Donostiako CEBANCen. Formazio ekintza honek kontratazio konpromisoa zuen, eta Beterri-Buruntza eskualdeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta edo Usurbil herrietan erroldaturiko eta, bereziki, kalifikazio baxukoei edo iraupen luzeko langabetuei zuzenduta zegoen. Parte hartu duten 15 ikasleen artean 13k lortu dute profesionaltasun ziurtagiria. Horietatik bederatzik kontratua sinatu dute sektoreko hainbat enpresekin. Beste laurak, sektoreko enpresetan ere, praktikak egiten ari dira.



**Diplomarekin ageri direnek hotelgintza arloan aritzeko ikastaroa osatu dute.**

2012tik daramate eskualdeko sei udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) elkarlanean, tokiko garapena, sustapen ekonomikoa eta enpleguko alorretan lan egiten. Lan honen emaitza da hizpide dugun ikastaroa. Josune Mujika Usurbilgo udal teknikariaren esanetan, eskualdeko prestakuntza gutxiko emakume langabetuei lan-munduan txertatzeko aukera eskaintzea da helburu nagusia.

## Laburrean

### Eskuko telefonoak batzeko elkartasun kanpaina

"Eskuko telefonoak biltzen ari gara, Patologia Mitokondriala aztertzen jarraitu dezaten". Udarregi ikastolako ikasle batzuk jarri dute kanpaina hau martxan. Mapfre bulegoan utzi ditzakezue.

### Euskara eta aisialdiko udal diru-laguntzak

2017-18 ikasturtean, euskara ikasten aritu edota aisialdi begirale zein zuzendari ikastaroa egiten aritu direnek udal diru-laguntzak eskatzeko aukera dute uztailaren 6ra arte udaletxeko erregistroan.

### Opor aurreko azken astekariak

Uztailaren 20an argitaratuko dugu opor aurreko azken NOAUA! astekaria. Ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, hilaren 16rako helarazi erredakzioa@noaua.eus helbidera edo egoitzara.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Imanol Ubeda

# Ugarte

Kalezarren ibili gara egunotan. Oinez eta autoan. Joan etorrian, Ugartondoko etxebizitzak badatozela ikusi dugu. Bertan ziren pabilioiak lurrarekin berdindu dituzte; Ugarte baserriaren edertasuna agerian utziz. Batzuk ahaztuta izango dute; beste batzuk ahaztuarazi nahiko dute. Baina duela ez hainbeste, Ugarte baserria bera ere espekulazioaren hatzaparretan erortzeko arrisku bizian izan zen. Pasarte ilun hark erreportaje eder baterako eman zuen. NOAUA!k bere baitan jaso duen ederrena ez bada:

"(…) Ugarte baserria botatzera zijoazela lehenengoz irakurri nuenean, aldizkari honetan, hain xuxen, halako izugarrikeria iruditu zitzaidan, non uste izan nuen albiste honen emailearen, Zaloa Arnaizen, gaizki ulerturen bat izango zela, eta, egia esan, ez nion kasu haundirik egin.

Geroztik, ordea, izan da beste albisterik, eta ez zorionekorik, zoritxarrez. Zaloak ez zuela gaizki ulertu, alegia. Lehen etorri zaidan galdera: *Erotu al gara, Ugarte bota?*. Usurbilen eraikuntza eder asko dugu, eta hauen artean ederrenetakoa, zalantzarik gabe, Ugarte baserria. Eta ez gure herrian bakarrik, Euskal Herri osoan ez dira beste hogei baserri egongo honen mailakoak, ez haunditasun nola edertasun aldetik (…)".

(…) Gaur etxeak, edo etxe izenekoak, lurraren erraietan behera sartu egiten dira; baserriek, aldiz, lurretik gora sortuak dirudite, inguruko zuhaitzak edo mendixkak bezalaxe. Horietakoa dugu Ugarte, eta hala bizi dugu usurbildarrok ere; hor ezagutu dugu beti jaio ezkerezkotik, geure paisaiaren osagai bizia bezala. Haren aurretik igarotzean gogora datorzkigu bertan mendeetan zehar bizitu diren, eta Usurbil egin diguten, hainbat eta hainbat familia. Usurbil hiribildu bezala eratu zenean duela seirehundik gora urte, Josu Tellabidek dioenez, Ugartekoak tartean zitezkeen seguruenik. Ugarte oinetxe da, hau da, leinu edo familia baten sortetxea. Eta oinetxeak herri baten zutabeak direla ezin dezakegu ahaztu, bai historia, bai ekonomia nola kultura aldetik. Eta hori ezereztekotan gabiltza? (…).

(…) Alde askotatik da garrantzitsua horrelako baserria herri barruan egotea, urrutira joan beharrik gabe, herritarrek eguneroko bizitzan berarekin topo egin eta bere edertasunaz gozatu ahal izatea, naturalki. Hau da, kultura kalean, eta ez soilik museoetan edo liburuetan edo eskoletan. Baserriaren ikusteak, mendeetako gu guztion historia bizierazten digu; bertan bizitutakoen bizimodua gogoratzen: Nola ziren bertan jaiotzen, hazi, hezi, bizi eta hiltzen, eta garai batean, nola etxe ondoko baratzean lurperatzen zituzten lur gozoan, horrela biziak eta hilak senitartean bizitzen jarraitzen zutelarik. Jende normala nola bizi zen eta den ez ahaztea komeni zaigu, batez ere, geuri, beti kanpoan gabiltzanok: Jaio, ospitalean jaiotzen; biberoia hartu, haurtzaindegian; hazi, eskolan; hezi, telebista barruan; bizi, fabrikan; zahartu, zahar-etxe dotoreetan; eta ehortzi, tanatorian lurperatzen gaituztenoi, behin apainki makilatu ondoren, hildakoen itxura txarrik eduki ez dezagun. Ahaztuko zaigu bestela zentzuzko bizimodurik izan daitekeenik ere. Gogoratzen garen bitartean, beti dagoke itxaropenik! (…)".

2005eko otsailaren 4an, 198. zenbakian plazaratu genuen erreportajearen lehen zatia. Segidakoa, astebete beranduago.

Erreportajeak Joxan Artzeren sinadura zeraman.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | **Imanol Ubeda** | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Uztailaren 12an, Harria Hitz bisita gidatua

UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak astebete barrurako antolaturiko udako ikastaroaren harira, Harria Hitz bisita gidatua antolatu du Udalak uztailaren 12rako.

UEU-ren "Utopia 68/18: iruditeria berrien bila" Jakin Jardunaldiaren harira, "geuk ere, 60ko hamarkadara bidaia (eta gogoeta) proposatuko dizuegu".

**Arratsaldez**

Aipatu moduan, hilaren 12an, 18:00etan finkatu dute bisita abiatzeko hitzordua. Lehenbizi herrian barrena ibilalditxoa egingo da, eta gero, Txokoaldeko Txalaparta Txokoa ezagutu ahalko da.

**Informazioa eta erreserbak:**
688 818 017
info@kultuor.pro

## Komikia




TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Jaietan kutsu politikoa alde batera uztea eskatu du Usurbilgo EAJ-PNVk

Herriko festak guztionak direlako "eta ez Ezker Abertzalearenak bakarrik". Hala dio EAJ-PNVko udal taldeak eta horregatik festetan kutsu politikoa alde batera uzteko eskatu zuen jaien hasieran.

"Berriro ere Santixabelak 2018 programak udaleko agintean dagoen alderdiaren kutsu politikoa darama. Egitarauaren arabera ez dirudi usurbildar guztiontzako jaiak direnik, nahiz eta guztion zergetatik ordainduak izan. Usurbildarrok gizarte anitza osatzen dugu eta pentsaera ezberdinekoak gara eta herriko jaiak guztion topaleku izan behar dute", halaxe adierazi zuen talde jeltzaleak jaien atarian igorritako prentsa-ohar baten bidez.



**Alderdi jeltzalearen esanetan, "ez du balio ekitaldi erlijioso bat dela esatea eta horregatik ez duela meza nagusiak aipamenik festetako egitarau ofizialean eta gero ekitaldi politikoak sartzea".**

**Meza nagusiaren aipamenik ez jai egitarauan**

Usurbilgo EAJ-PNV udal taldearen esanetan, "bakoitzak baloratuko du egokia den ala ez jai egitarauaren barruan erraustegiaren aurkako manifestazioa eta preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira sartzea eta alderantziz, betidanik Santa Ixabel egunean bere ohorez ospatzen diren festetako meza nagusiari inolako aipamenik ez egitea". Alderdi jeltzalearen esanetan, "ez du balio ekitaldi erlijioso bat dela esatea eta horregatik ez duela aipamenik festetako egitarau ofizialean eta gero ekitaldi politikoak sartzea".

*EAJ-PNV UDAL TALDEA*

***"Usurbildarrok gizarte anitza osatzen dugu eta pentsaera ezberdinekoak gara eta herriko jaiak guztion topaleku izan behar dute"***

**Zinegotzi jeltzaleek ez zuten txupinazoan parte hartu**

Prentsa-ohar berean jakinarazi zutenez, zinegotzi jeltzaleak ez ziren udaletxera agertu txupinazoaren unean: "Azken urteetan festen hasiera baino gehiago manifestazioaren amaiera bilakatzen delako. Dena dela gora Santixabelak! aldarrikatzeko eta topa egiteko aukerak eta giroak ez dira faltako".

## Zumarte birgaitu eta handitzeko lanak esleitu ditu udalbatzak

Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko aurrez eginiko obren kontratazio deialdira eskaintza bakarra aurkeztu eta huraxe izendatu zuten eskaintza ekonomiko onena bezala, maiatza hasieran udalbatzak egin zuen ezohiko osoko bilkuran; Construcciones Moyua S.L.-rena alegia. Gero 10 eguneko epea izan zuen aipatu enpresak beharrezko agiriak aurkezteko. Tramite hau egoki bete ostean, musika eskolaren eraikina birgaitu eta handitzeko lanak aipatu enpresari esleitzeko proposamena eraman zuen udal gobernu taldeak ekainaren 26an egin zuten osoko ohiko bilkurara. Aho batez onartu zuten udal ordezkari guztiek. Guztira, 1.981.219,02 euroko inbertsioa (BEZ barne) bideratuko du Udalak egitasmo honetara.









# 2017ko Kontu Orokorra betiko onartua

Maiatza amaieratik 15 egunez alegazio epean egon eta inork erreklamaziorik aurkeztu ez duela ikusita, behin betiko onartu zuen udalbatzak ekainaren 27ko osoko bilkuran, Usurbilgo Udalaren 2017ko Kontu Orokorra. Gehiengo osoz, EHBilduren aldeko bozkekin. EAJ-k aurka bozkatu zuen eta PSE abstenitu zen. Gai honi lotutako espedientea, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari helaraziko dio Udalak, dagozkien azterketak egiteko.



Gehiengo osoz onartu zen.

**Espedienteen kudeaketa**

Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL) eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearekin (HAEE) prestakuntza eta laguntza programan parte hartzeko izapideen eskuliburua egiteko atxikitze protokoloa onartu eta sinatzea babestu zuen udalbatzak aho batez, ekainaren 27ko plenoan.

**Lehendakaritza aldaketa**

Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde informatzailean lehendakaritza aldaketa egin dute. Orain arte, Xuban Zubiria Elexpe zinegotziaren ardurapean zegoen sail hau. Ardura Alaitz Aizpurua Labaka zinegotziak hartuko du orain.

# Berrialagun zozketa

500 euroko bi sari eta 300 euroko hirugarren bat, guztira 1.300 euro banatuko ditu herritarren artean uztailaren 16an, “Erosi Usurbilen Berriaren eskutik” kanpainak. Berria egunkariaren lagunak diren herriko 31 establezimenduetan erosketak egitearen truke, zozketarako boletoak jasoko dituzue. Esandakoa, uztailaren 16ko zozketan emango dira ezagutzera saridunak nortzuk diren. Ekimena Berriak, Usurbilgo Udalak, Hurbilago Elkarteak eta Berrilaguna kanpainarekin bat egin duten herriko ostalari eta merkatariek sustatu dute.


Uztailaren 16an egingo da zozketa.

## Udal diru-laguntzen behin betiko ebazpenak

Erreklamazioen epea itxi eta udal barruko tramitazioa osatu ostean, 2018ko deialdira, eragile zein herritarrek kultura, kirola, gizartegintza, ingurumena, nekazaritza eta abeltzaintza arloetako aurtengo egitasmoak babesteko eginiko eskaerei buruzko behin betiko erabakia plazaratu du Usurbilgo Udalak. Ekainaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso ditzakezue xehetasunak.

**Euskara eta aisialdiko laguntzak**

Uztailaren 6ra arteko epea dute interesdunek, urtean zehar euskara ikasten aritu, edota aisialdiko zuzendari zein begirale ikastaroak egin dituztenek udal diru-laguntzak eskatzeko. Gogoan izan bestalde, behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleen kasuan, hurrengo 2018-19 ikasturteko matrikula kostua aurreratzeko modua eskaintzen duela Udalak.

**Ekintzaileentzako laguntzak**

Proiektu bat eskuartean duen ekintzaileari zuzenduriko beste bi diru-laguntza deialdi ere martxan ditu Udalak. Lokal komertzial hutsak biziberritzeko bata, eta Kabienen urtebeteko egonaldia egiteko aukera ematen duen Hasiz Hazi beka.

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

# Udako ordutegiak indarrean

Uztailan sartzearekin batera, hainbat zerbitzuk urte garai honetara egokitu dituzte ordutegiak:



**Bus taxiak ordutegi berria izango du uztailean.**

**Sutegi udal liburutegia**
Uda osoan, astelehenetik ostiralera 09:30-14:00 artean izango da zabalik. Uztaileko astelehenetan, baita 17:00-19:00 artean ere.

**Oiardo Kiroldegia**
Uztailan eta abuztuan honako ordutegi hau izango du Oiardo Kiroldegiak:
■ Lan egunetan: 7:00-13:00/17:00-20:15 (igerilekuaren itxiera: 12:45/20:00).
■ Larunbatetan: 9:00-13:00 (igerilekuaren itxiera: 12:45).
■ Igande eta jai egunetan: 9:00-13:00 (igerilekuaren itxiera: 12:45).
■ Abuztuaren 1etik 15era itxita egongo da.

**Garbigunea**
Atallu industriagunean kokatua dagoen zerbitzuko ordutegia urte garai honetara egokituko dute laster:
■ Uztailaren 15era arte: astelehenetik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00 artean; larunbatetan, 09:00-13:00 artean irekiko dute.
■ Uztailaren 15etik irailaren 15era: astelehenetik ostiralera, 10:15-14:00 artean eta larunbatetan, 09:00-13:30 artean.

**KzGunea**
Uztailean arratsaldez irekiko dute, 16:00-20:00 artean. Abuztuan itxita egongo da. Asteotarako iragarri duten ikastaro eskaintza duzue segidan:
■ Uztailak 12-13, 16:00-18:00 “Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez”.
■ Uztailak 16-25, 16:00-18:00 “Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako”.
■ Uztailak 26-27, 16:00-18:00 “Argazkiak. Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik”.
■ Uztailak 30, 16:00-18:00 “Ordainketak Interneten segurtasunez”.
■ Informazio gehiago:
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

**Bus taxia**
■ Uztailean goizez, astelehenetik ostiralera 07:30-08:30, 10:30-11:30 eta 13:00-14:00 artean eskainiko da zerbitzua.
■ Arratsaldez, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 artean ez da zerbitzurik izango. Ezta uztailaren 31n eta abuztuan ere ez. Irailaren 13tik aurrera, ohiko ordutegira itzuliko da bus taxi zerbitzua.

**Euskotren**
Udako ordutegia indarrean du Euskotrenek, zerbitzu gehiagorekin. “Asteburuetan eta jaiegun arratsaldeetan, Zumaia-Amara-Zumaia tartean trenen eskaintza bikoiztu egingo da”, berri eman dute.
■ Informazio gehiago:
euskotren.eus
944 333 333.

# Arrate Elkarteko taberna itxita

Eiza saltokia lehenik, Etxebeste eta Sekaña gero… Urte luzez aginagarren bilguneak izan direnak ixten doaz pixkanaka. Azkena, Arrate jubilatuen elkarteko taberna izan da. Kontratu amaiera tarteko, aurreko astean itxi zuten, bertako arduradunak bederatzi urteko ibilbidea egin ostean. Merezitako agurra jaso du azken asteotan, eskolako kide eta jubilatu elkartekoen aldetik.



**Urte luzez aginagarren bilguneak izan direnak ixten doaz pixkanaka.**

## Udarako eskaintza zabala Gaztelekuan

Oporren hasierak, urte garai honetan antolatu ohi diren udako aisialdi ekimenen abiatzea dakar. Gogoan izan, txokoak antolatu direla Aginagan eta Zubietan. Udako ekintzak Gaztelekuan eta Udajolas Usurbilen. Gaztelekuak eskaintza zabala prestatu du. Txangoak tartean.

**Irteerak, egun osokoak**
“Irteerak egun osokoak izango dira eta guraso baimena Gaztelekuan jaso behar da eta bertan zehaztuko da ordutegia eta zer eraman behar duen” gazteak.

**Eskaintza:**
■ Uztailak 5:
Pelikula + palomitak.
■ Uztailak 6-7:
“Uda 2018” irteera (DBH 3).
■ Uztailak 9:
Kamisetak tindatu.
■ Uztailak 12:
Ur jolasak.
■ Uztailak 13:
Telareekin eta trapiloarekin eskulanak.
■ Uztailak 16:
Gaztelekuko konponketa eta margotze lanak egin.
■ Uztailak 19:
Hernaniko igerilekura irteera (DBH 2).
■ Uztailak 20:
Donostiako irlara irteera (DBH 1).
■ Uztailak 23:
“Bideo tailerra” (“Beldur barik” ekimenerako ideiak landu).
■ Uztailak 26:
Datorren ikasturteari begira, Gaztelekua txukundu eta agurra egin.

**Informazio gehiago:**
943 371 050
688 713 838
gaztelekua@usurbil.eus

# Besarkada bana Xua, Olatz eta Patxirentzat

Jaiotan tarte bat egon da baita, Usurbildik 600 kilometrora dauden Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangari besarkada handi bana bidaltzeko. "Maite zaitut" abestuz helarazi zioten besarkada hori, ondoko irudian dituzuen usurbildarrek, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, ekainaren 30ean egin zen ekitaldian. Aurretik, kantu-jira eta ehunka lagun batu zituen zikiro jana ospatu zituzten.



**"Maite zaitut" abestuz helarazi zioten besarkada bat Xuari.**

**Larunbatean, ekitaldia Orion**

Iheslari eta deportatu politikoen aldeko ekimen eguna antolatu dute larunbaterako (uztailak 7) Orion. Usurbildik ere hara, "Bada garaia. Iheslari eta deportatu politikorik gabeko Euskal Herria" aldarripean egingo diren ekitaldietara joateko deia egin da. Tartean, iheslari eta deportatuen itzulera irudikatuko duen ibai jaitsiera iragarri dute.

Egun honekin, batetik, iheslari eta deportatuen errealitatea gehiago ezagutarazi nahi dute. Euskal Iheslari Politikoen Kolektibotik aditzera eman dutenez, 1960. hamarkadaz geroztik, errepresioaren eraginez, 2.500 euskal herritarrek baino gehiagok jo behar izan dute erbestera. Ordutik 271 estradizio egin dira, 382 entrega eta 74 deportazio. 84 hil dira ihesean, "eta horietatik 27 gerra zikinak eragin ditu".

Aipatu kolektiboak 2013an kaleraturiko Miarraitzeko Adierazpenean, ahal zen neurrian, Euskal Herriko kaleetara bueltatzea erabaki zuten. 150 iheslari itzuli dira ordutik. Bide horretan sakondu nahi dute.

**Uztailak 7, larunbata**

- 11:00 Jaitsierako parte-hartzaileak Arraun Elkartean.
- 12:00 Oria ibaiaren jaitsiera.
- 13:00 Iheslari eta deportatu ohiei harrera portu ondoko zubian.
- 13:30 Ekitaldi politikoa plazan.
- 12:00 Parrillada plazan.

## Ekintzaileentzako diru-laguntza deialdiak

Proiektu bat eskuartean izan edo garatu nahi duen ekintzaileari zuzendutako bi udal diru-laguntza deialdi martxan ditu Usurbilgo Udalak. Eskabideak bideratzeko irailaren 30era arteko epea zabaldu dute. Batetik, hutsik dauden merkataritza lokalak biziberritzeko deialdia dugu, jarduera ekonomiko berri bat martxan jarri nahi dutenei zuzendua, lokalaren alokairu gastuei aurre egiten laguntzeko. Bestetik, Hasiz Hazi, proiektu bat lantzen ari den ekintzaileari Kabienen urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetuko dion beka deialdia. Informazio gehiago, maiatzaren 25 eta 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo usurbil.eus atarian.

# Aurkezpen jendetsua



Sutegi udal liburutegia txiki geratu zen ekainaren 27an, Ugaitz Agirre Zapirainen *Tximeletak bizkarrean* (Susa argitaletxea) estreinako nobelaren aurkezpen ekitaldian. Istorioaren mamiaz, liburu honen atzeko lanketaz jardun zuen Ugaitz Agirrek, Argiako kolaboratzaile Kepa Matxainek bideratu zuen solasaldian.

# Udajolas martxan



Festen biharamuneko ohiko irudia. Santixabelen ostean, Usurbil bere onera itzultzeko lanean hasi berritan, haur, gaztetxo eta gurasoen joan etorria goizean goizetik. 4-12 urte arteko 192 haur eta gaztetxo eta begiraleak jolas eta ekintza ezberdinetan parte hartzen ikusiko dituzue asteotan. Udajolas uztailaren 27ra arte egongo da martxan.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Patri
Patrienea jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
✆ 943 370 008

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

# “Txipli, txapla, pun! Eman hasiera festari!”

*Usurbildarrok, hemen ditugu Santixabelak. Iritsi dira herriko jaiak!*. Xabier Arregi alkateak hitz horiekin hasi zuen txupinazoa piztu aurreko hitzalditxoa. Udaletxeko balkoitik aritu zen, gaztain erretzaileak eta EH Bilduko zinegotziak aldamenean zituela. Aurten ez da oposizioko ordezkaririk izan jaien hasierako ekitaldian.

Txupinazoaren unean, festaren eta aldarrikapenaren agertoki bilakatu da udaletxeko plaza. Erraustegiaren aurkako manifestazioa udaletxe aurrean amaitu zen eta alkateak keinu bat egin zion mobilizazio honi: “urte mugitua doakigu. Pentsiodunak batetik, Gure Esku Dagokoak bestetik… Gaur sexu eta genero askatasunaren aldeko LGTBIQ+ kolektiboaren eguna dugu. Bejondeizuela guztioi! Ez gara isilduko. Oihu egingo dugu plazan eta ozen esango dugu, sekula ez bezala: ez dugu erraustegirik nahi eta ez dugu erraustegirik behar!”. Azken esaldi honek plazan batu zen jendea jarri zuen oihuka.


**Gaztain erretzaileak eta udal gobernuko kideak, suziria piztu aurretik.**

> GAZTAIN ERRETZAILEAK
> ***“Bertakoak izanda, ohore handi bat da. Eskerrik asko gu aukeratzeagatik”***

### Espetxean direnak gogoan

Bestelako aldarrikapenak ere hartu zituen ahotan alkateak. “Gogoan ditugu kanpoan diren herritar guztiak, giltzapean dituztenak bereziki. Xua, Olatz eta Patxi, euskal presoak etxera!”, espetxean dituztenak ahaztu gabe. Parekidetasuna udal gobernuaren beste helburu garrantzitsu bat da eta hauxe nabarmendu nahi izan zuen txupinazoaren unean: “lasai eta libre gozatu nahi dugu herriko jaietan. Ez dugu inolako indarkeriarik edo sexu erasorik ametituko”.

### Euskaraldiari aipamena

Euskaraldiaren urtea izanik, euskaraz aritzeko deia egin zien herritarrei: “dantzatu mingainak, prestatu belarriak eta egin euskaraz. Nonahi eta noiznahi, gu herri euskalduna gara eta egin dezagun euskaraz!”.

Gaztain erretzaileak aldamenean zituen eta haientzat izan ziren azken hitzak: “Hauek dira herrigintzaren alderdi fresko eta ezinbestekoa. Biba zuek! Txipli, txapla, pun! Eman hasiera festari!”.

### “Bertakoak izanda, ohore handi bat da”

Gaztain artean gusturago egoten dira, mikrofonoaren aurrean baino. Dena den, urduri egonik ere, esker oneko hitz batzuk egiteko aukera izan zuten gaztain erretzaileek. “Bertakoak izanda, ohore handi bat da. Eskerrik asko gu aukeratzeagatik”, esan zuen gaztainzaleetako batek. Hamabost urte egin dituzte gaztainak erretzen eta horrela jarraitzeko asmoa dutela azaldu zuen beste batek. *Ondo pasa Santixabelak!* oihukatu ondoren, suziria piztu zuten eta orduan lehertu zen festa. Orbeldi Dantza Taldeak, Erraldoi eta Buruhandien Konpar–tsak, dultzaineroek eta txaranga doinuek girotu zuten festa hasiera.

# Jaien beste aurpegia


**Askatasuna plaza ondoan aparkatua zegoen auto bat horrela agertu zen igandean. Aurrealdean zulo itzela zuela.**

# Altsasuko gazteen alde


**Txosnetako Bertsio Gaua, elkartasun ekitaldia ere izan zen. Herriko musikariak bildu zituen hitzordua, Altsasuko gazteen alde abestuz abiatu zuten.**















































**Argazki gehiago eta bideo ugari, gure sare sozialetan eta noaua.eus web orrialdean. Bertsopaper lehiaketako lan sarituak datorren astean plazaratuko ditugu.**

# Erraustegiaren aurkako aldarria, jaietan ere bizirik

Foru Aldundiaren aurreikuspenak betetzen badira, erraustegia eraikia izan aurreko azken jaiak ospatu ditugu egunotan. Urtebete barru, garai honetan, proben fasean izan dezakete Zubieta gaineko planta. Beste behin, ez hemen, ez inon, erraustegirik ez dutela nahi exijitzeko, eta aipatu proiektuaren aurka mobilizatu ziren ehunka usurbildar ekainaren 28an, festen hasieran.




Ekainaren 28an egin zen erraustegiaren aurkako manifestazioa.

**Valdemingomezeko erraustegiaren itxiera**

Erraustegiaren aurkako manifestazioa abiatu zenean, Madrildik heldu berria zen albistea. 2025. urtean Valdemingomezeko erraustegia ixtea erabaki zuela hango Udalak.

Valdemingomezeko erraustegia ezaguna egingo zaizue, hamarkada luzez mobilizatu baitira inguruetako herritarrak. Tartean, erraustegiak kalteturikoak. GuraSOSen eskutik, 2016ko maiatzean Hernaniko Oronan antolatu zituzten jardunaldietan erraustegi haren ondoan bizi den Clara Peralesen lekukotza ezagutzeko aukera izan genuen.

GuraSOS aipatuta, ez ahaztu, Zero Zona ikus-entzunezko kanala sortua dutela Youtuben. Ostegun arratsaldero elkarrizketa, erreportaje, edo albistegi bat eskaintzen dute. Ekainaren 28an “Rodriguez Farre CSICeko zientzilaria eta Europako Osasun Arrisku Berriei buruzko Batzordeko kideari elkarrizketa” egin zioten. Hurrengo saioa, ostegun honetan (uztailak 5).

# Sormen handiz dator belaunaldi berria

Frontoiko ezker pareta, usurbildar gaztetxoen sortze lanen horman bilakatu zen jaien hasieran ospaturiko 16. Pintura Lehiaketari esker. Herrian sormenerako gogoa eta iaiotasuna badela argi utzi zuten, 2-16 urte arteko haur eta gaztetxoek. “Zein lorerekin apainduko zenituzke Usurbilgo lorategiak?” galderari marraztuz erantzun behar zioten. Urtero moduan, 11 izan dira sarituak, segidan duzue zerrenda. Urtebete barru gehiago izan daitezke, guraso batzuk parte hartzeko gogoa azaldu baitute aurten.



Urtero moduan, 11 izan dira pintura lehiaketan sarituak.

**Sarituen zerrenda**

- 2, 3 eta 4 urtekoen artean: Beñat Lasa (4 urte).
- 5 urtekoen artean: Nahia Goiatxe.
- 6 urtekoen artean: Anne Lasa.
- 7 urtekoen artean: Eñaut Soroa.
- 8 urtekoen artean: Jule Manterola.
- 9 urtekoen artean: Martina Iribar.
- 10 urtekoen artean: Nadeth Sanchez.
- 11 urtekoen artean: Uxune Azkue.
- 12 urtekoen artean: Peru Agirresarobe.
- 13 urtekoen artean: Olatz Zabaleta.
- 14-16 urte artekoen artean: Iratxe Etxebarria Kamino (15 urte).

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 USURBIL

# Idoia Etxeberriak irabazi zuen Euskal Herriko Harrijasotzaile Txapelketa

Bi txapelketa jokatu ziren Santixabel bezperan. Euskal Herriko Harrijasotzaile Txapelketa batetik eta Aizkolari Txapelketa bestetik. Bietan emakumezkoak izan ziren partehartzaileak. Idoia Etxeberria eta Nerea Sorondo nagusitu ziren, hurrenez hurren.



Idoia Etxeberria, Karmele Gisasola eta Julia Martinez, ezkerretik eskubitara.

Harrijasotzaileek hiru lan osatu behar izan zituzten. Hasi harri zilindrikoarekin hasi ziren, kubikoari heldu zioten ondoren eta amaitzeko harri borobila altxatu behar izan zuten. Idoia Etxeberria aise nagusitu zen hiru probatan eta berarentzat izan zen txapela. Zilindrikoa 19 aldiz altxatu zuen Ortzaikako kirolariak. Kubikoa beste 19 alditan menperatu zuen eta harri borobilarekin 26 altxaldi egin zituen.

Karmele Gisasolak bigarren amaitu zuen proba, 7, 4 eta 20 altxaldirekin, hurrenez hurren. Julia Martinez segoviarra izan zen hirugarren, 5, 4 eta 17 altxaldi egin eta gero. Segoviarra izanik ere, Bizkaiko lizentzia du eta horri esker Euskal Herriko Txapelketan har dezake parte. Emakumezko zein gizonezkoen herri kiroletan ugaritzen ari dira Julia Martinezen moduko kasuak.

**Idoia Etxeberriaren agurra**

Sari banaketan etorri zen ezustea. Ortzaikako harrijasotzaileak erretiroa hartuko duela iragarri zuen. Txapela buruan zuela, Dema plazan zirenei hitz batzuk eskaini zizkien: “etxekoei eta urte hauetan onena opa izan didazuen guztioi eskerrik asko”. Hamabi urte egin ditu plazan eta erabakia hartzea asko kostatu zaiola aitortu zuen. Beste tokitik bada ere, herri kirolak babesten jarraituko duela adierazi zuen.

# Emarriren erakustaldi bikaina



Astigarragako Emarri taldeak eginiko erakustaldi bikainaz gozatzeko aukera izan genuen uztailaren lehenean. 20 minutuko tartean, 34 joan etorri egin eman zizkioten plazari, 550 kiloko harriarekin! Giza proba ikusgarri honen ostean, idi dema izan zen.

## Aizkolari Txapelketan, Nerea Sorondo nagusi

Harrijasotzaileena bezalaxe, aizkolarien saioa ere ikusgarria izan zen. Nerea Sorondoren botileroa oihu batean aritu zen eta bere ibilerarekin plaza osoa aztoratu zuen. Dena den, bere aholkuak eta animoak ez ziren hutsalak izan. Sorondok tarte handiarekin ebaki zituen bost enborrak. Berako aizkolariak 20’03” denboran osatu zuen bere lana.

Iturengoa da Maika Aristegi, bigarren sailkatu zen aizkolaria. Lana betetzeko 24’24” denbora behar izan zuen. Xanta Sousa lesakarrak osatu zuen podiuma; 25`10” denborarekin amaitu zuen bere zeregina.



Nerea Sorondo beratarra aise nagusitu zen.

## Mus Txapelketa

Musak zaletu mordoa du Usurbilen, eta jaietako txapelketak izan ohi dira horren lekuko. Santixabeletan ere lau bat orduko saioa jokatu zen. Parte hartzaile ugari erakarri zituen. Baina laukote hau heldu zen finalera:

- Txapeldunak: Arkaitz Martiarena eta Xabier Almandoz.
- Txapeldunordeak: Peru Ameztoi eta Enrike Huizi.

Zorionak!



Argazkian, txapeldunak eta txapeldunordeak.

# Xabier Santxo txapeldun

Festekin batera, uztailaren 2an ospatu ziren binaka jokatu diren Usurbilgo Pilota Txapelketako finalak, gazteen eta helduen mailan. Helduenean usurbildar bat txapeldun; Xabi Santxo.

**Gazteen mailan:**
Albeniz-Iruretagoiena 22
Aburuza-Iñarra 20

**Helduen mailan:**
Lizeaga-Santxo 22
Azketa-Elizegi 19



**Gazteen eta helduen mailako pilota txapelketako finalistak eta antolatzaileak.**

**Errifa zozketa:**
Mariskada: 885, zenbaki saritua. Jose Luis Muguruzari egokitu zaio.

Urdaiazpikoa: 403, zenbaki saritua. Sariduna ez da agertu. Egokitu zaionari jar dadila Pagazperekin harremanetan.

# Pala txapelketa, jaien atarian









**Argazkietan, kirol egokituko erakustaldiko partehartzaileak, pala txapelketako finaletara sailkatu ziren jokalariak eta Josu Arruti, zozketako saritua.**

Santixabelak abiatu bezperatan ospatu ziren pala txapelketen finalak. Pala egokituko erakustaldi bikainak abiatu zuen hitzordua. Eta segidan ospatu ziren, azken asteotan jokoan izan diren emakumezko zein gizonezkoen lehiaketako azken neurketak:

**Kirol egokituko erakustaldia:**
Edorta De Anta-Jesus Matarranz 17
Beñat Lizaso-Asier Nabaridas 25

**Txapelketen finalak:**

- Emakumezkoetan: Nahia eta Garazi Eizmendi ahizpak txapeldun; Miriam Arrillaga eta Ekiñe Balerdi txapeldunorde.
- Gizonezkoetan: Asier Arruti eta Haritz Urdanpilleta txapeldun; Jon Olaizola eta Unai Loidi txapeldunorde.

**Errifa zozketa**
Pagazpe Elkarteak 2018ko egutegiaren harira eginiko errifa zozketako zenbaki saritua 1.712 izan da. Saritua berriz, Josu Arruti.

## Errioxara asteburu pasa

Valgañon-Posadas eta Cubilla-Pancorbo ibilbideak osatzera irtengo dira mendizaleak, Andatza M.K.T.-k uztailaren 7tik 8ra antolatu duen asteburu pasan. Larunbat goizeko 7:00etan abiatuko dira autobusez Oiardo Kiroldegitik. Uztailaren 3an itxi zuten izen ematea.

**Informazio gehiago:**
andatza.com

## Kiroldegiko igerilekuko lanen atzeratzeaz

Uda parterako iragarri arren, azkenean irailean aurreikusia du Udalak, Oiardo Kiroldegiko igerileku txikia handitu eta irisgarri izateko lanei ekitea. Irailean hasi eta martxora bitarte luzatuko lirateke obra hauek, EAJ-tik gai honi buruz eginiko galderei ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran udal gobernu taldetik erantzun zietenez. Atzerapena lanak esleitzeko lehiaketak eragin du, deialdira ez baitzen inor aurkeztu. Horrez gain, hainbat enpresekin izandako hartuemanetan, proiektua berrikusi beharra ikusi dute, kostu estimazioa justu samarra zela antzeman ostean.

Abonatuei ekonomikoki konpentsatuko zaiela ere nabarmendu zuten azken plenoan. Lanen atzerapenak Foru Aldunditik jasotako diru-laguntzan eraginik ez duela izango ere argitu zuten. Laguntza honek obrak abendurako amaitzea eskatzen zuen. Azkenean, foru laguntzaren %80a aurreikusitako garai barruan jasoko da, gainerako %20a obrak amaitzean.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro2, 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidearekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2- terraza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

### Alokairuan

Pisu bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m2-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentziaonekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520



**Zorionak Olaia, Nora, Enaitz eta Nahiane!** Muxu asko, zuen lehengusuen partez.



**Zorionak bikote!** Zorionak Beñat eta Eneko. Muxu asko etxekoen partetik. Ondo pasa zuen urtebetetzean.



**Zorionak hiruroi!** San Juan egunean Ioneren urtebetetzearekin hasi, Santixabel biharamunean Jaionerenarekin jarraitu eta San Fermin bukaeran Aloñarenak. A ze festa! Muxu bana etxekoen partez.

## Heriotzak

**Juanita Galarraga Murua**
83 urterekin hil zen ekainaren 25ean Usurbilen



**OHARRA:** 2018ko uztailaren 13an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: uztailaren 9a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezela edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferientziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezela, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

## BESTELAKOAK

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroduna. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahaia, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Kutxabank | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Uztailak 05 - Uztailak 15

| | | | |
|---|---|---|---|
| Osteguna | 05 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| Ostirala | 06 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| Larunbata | 07 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| Igandea | 08 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| Astelehena | 09 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| Asteartea | 10 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| Asteazkena | 11 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| Osteguna | 12 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| Ostirala | 13 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| Larunbata | 14 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| Igandea | 15 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda uztaila

## 05 osteguna

- **Euskaraldia antolatzeko bilera.** 18:00etan Potxoenean.
- **Laboaren Uztaila: Igor Arzuaga (Mara bakarlaria).** 22:00etan Mikel Laboa plazan.

## 07 larunbata

- **Errioxara irteera.** Bi eguneko irteera, Andatza taldeak antolatuta. Autobusa 7:00etan irtengo da Oiardo Kiroldegitik (izen-ematea uztailaren 3an amaitu zen).

## 09 astelehena

- **Odol ematea.** 18:00-20:30 artean, anbulatorioan.

# Jakin Jardunaldietan, "iruditeria berrien bila"

*Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila* izango da udako ikastaroaren aztergai nagusia. Gogoeta kolektiboaren bitartez, "nora goazen edo nora joan nahiko genukeen" aztertuko dute. Uztailaren 12an eta 13an, Usurbilen.

UEU, Usurbilgo Udala eta Jakin aldizkariaren elkarlanaren emaitza da udako ikastaroa. "Gaur egun eta hemen utopia zeri deitzen diogun aztertzeko, gizartea eraldatzeko borroka eremuak non dauden zehazteko, eta zer iruditeria kolektibo eraiki eta partekatzen ari garen hausnartzeko, nola berritu dezakegun pentsatzeko balioko du Jakin Jardunaldiak", Lorea Agirre Jakineko zuzendariak aditzera eman duenez.



**Udako ikastaroa UEU, Jakin eta Usurbilgo Udalaren elkarlanaren emaitza da.**

**Izen-ematea**

Izen-ematea zabalik da oraindik. Informazio gehiago bide hauen bitartez eskura dezakezue:
www.ueu.eus
943 82 14 26
i.iciar@ueu.eus

## Uztailaren 9an, odol ematea

Jaien ondorengorako egin dute uztaileko deialdia. Uztailaren 9an astelehena egingo da, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era, ohiko tokian: Usurbilgo anbulategian.

## Uztailaren 10ean, jaien balorazioa

Usurbilgo festak baloratzeko bilera irekia antolatu du Jai Batzordeak. "Herritar eta eragile orori zuzendua dago", deitzaileek aditzera eman dutenez. Uztailaren 10ean asteartea, 18:00etan Potxoenean.

## Datozenak

### Uztailaren 12an osteguna, Joseba Irazokiren kontzertua

Gitarrista polifazetikoa da Joseba Irazoki, konposizioan ez ezik inprobisazioaren munduan ere gogo biziz barneratzen dena. Folka, rocka, psikodelia, bluesa,... eta tresnen esperimentazioa hartzen ditu bere baitan, proposamen artistiko harrigarri eta sailkaezina osatuz. Datorren astean Mikel Laboa plazan arituko da, *Laboaren Uztaila* zikloaren baitan. Uztailaren 12an osteguna, gaueko 22:00etan hasita.

**Txapela pasako da**

Jaialdia autogestionatua denez eta inolako diru-laguntzarik gabe egiten denez, "betiko lez txapela pasako da kontzertuetan ikusleek borondatea jar dezaten", antolatzaileek aurreratu dutenez. "Aurtengoan ordea, musikariek laguntza eskaini dute beraien diskoak oparituz eta disko hauen sorta ederrak zozketatuko dira".



**Uztailaren 12an arituko da Mikel Laboa plazan.**

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA
MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil


Usurbilgo sagarra,
udako freskagarri naturalena
URDAiRA
Aginaga 943 37 26 91
URDAiRA
SAGARDO NATURALA
SIDRA NATURAL


Noaua! App
Herriko berriak beti soinean
Albisteak, agenda eta askoz
gehiago Noaua! app berrian.
Deskargatu doan eta jaso herriko
azken berriak mugikorrean.
Eskuratzeko:
App Store
Google play
www.noaua.eus

berria laguna

# Erosi



# Usurbilen

## berriaren eskutik

## sariak

**500** euroko TXEKEA

**500** euroko TXEKEA

**300** euroko TXEKEA

## Zozketa

uztailaren 16an egingo da

Laguntzaileak:

Usurbilgo Udala

hurbilago

Babeslea:

FAGOR

FAGOR AUTOMATION

GEROA ZUGAN

berria

#BERRIAK15